



Arginzonizuriarte etxebizitza

Aldacrak: Froilanena / Uriarte
Ahozkoa: Arginzóniz uriárte / Udxárte
Uriárte / Fróillanéna

“... la casería nombrada Arginzoniz Uriarte... en el barrio del Oeste, de la anteiglesia de Berriz, se compone de dos viviendas, cuyas distribuciones son, en la vivienda del lado Sur y su piso llano, un zaguan común a las dos viviendas, cocina, dos cuartos y cuadra, en el piso principal dos cuartos y cuadra y en el resto desvan y pajar, y sobre el cuarto en la planta central camarote. En la otra vivienda del lado Norte en el piso llano cocina, un cuarto y cuadra y en el piso principal dos cuartos, camarote y pajar, y encima de los cuartos camarote... caseta horno de pan cocer situada contigua y hacia Sur de la casa...”

DJE 6/75 or. (1892)



43° 10' 31"

2° 35' 50"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Egun hutsik eta erdi-erorita dugun baserri-
etxe honen gaineko lehen aipu dokumentalak
XVIII. mendean aurkitzen ditugu. 1704. urte-
ko su-errodan agertzen zaigun *Uriarte* izenak
eraikin honi egiten dio erreferentzia. Gerora,
dokumentazioan era bi tartekatzen dira: *Argin-
zonis Uriarte* (1723, BAH, A789/32) eta *Uriarte*
(1857, BUA, Viv.). Auzotarren artean, aldiz, era
desberdinak erabili izan dira baserria aipatze-
rako orduan: *Arginzóniz uriárte*, *Udxárte*, *Uriárte*
eta *Fróillanéna*, jabearen erreferentzia egiten
diona.

XVII. mendean oso hedatuta egon zen egitura
badu ere, beste baserri batzuetan ikusten dugun
ezaugarria dauka, hots, atarteak alboan kokatu-
ta izatea, XIX. mendeko handitze baten on-
dorioz. Jatorrizkoa garbia da. Hiru gorputzez
osatuta zegoen. Aldameneko biek harlanduzko
kantalak eta baoak zituzten, horma zuriekin
kontrastea eginaz; eta erdiko atarteak burutzeko,
egurrezko dintela erabili zuten eta eusteko, oso
zabala zelako, harrizko oina eta egurrezko zu-
tikoa. Gainean, zurezko egitura zeukan, harlan-
gaiz arineko tarteekin, eta egurrezko leihoekin.
Baliteke bizitza biko baserri bihurtzeko lanak
egin zituztenean, etxea eskuma aldean zabal-
tzea, gailurra ere mugituz eta bakoitzari ganba-
ra aldean balkoi bana ematea.

toponimia

Bizkaiko etxe izenak inongo luzeenak dira Euskal Herrian eta beraietan oinarritutako deiturak luzeenak ere badira. Arrazoia ulertzeko erraza da. Sarritan, Erdi Aroan etxe bat egon zen inguruan gehiago eraiki ziren eta guztiek gorde zuten jatorrizko izena etxe beraren izanarekin batera. Lehenengo eta behin auzoaren izena dugu eta gero etxearen berarena: Zengoitatagoitia, Trañajauregia, Gazteluiturri. Kasu honetan Aginzoniz auzoko etxeen artekoa da Uriarte. Uri hitzak adiera bi ditu "hiribildua", Durango edo Ermua bezala, eta gaur egun galduta dagoen "etxea". Erdaraz ere gauza bera gertatzen da eta villa hitzak adiera bi hauek ditu. Beraz, gaur egun Etxearte esango genuke gauza bera esateko.